

GIPUZKOAK AZKEN BELAUNALDIKO ERRESONANTZIA MAGNETIKOKO EKIPAMENDU BERRI BAT IZANGO DU, OSATEKEN BIDEZ

Donostia Unibertsitate Ospitaleko unitate berria bisitatu du gaur Urkullu lehendakariak; kalitate hobeko irudiak eta azkartasun handiagoa eskaintzen ditu eta Osakidetzako profesionalei patologien detekzio goiztiarra hobetzen lagunduko die.

Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu, Osasuneko sailburu Jon Darpón eta Osakidetzako zuzendari nagusi Jon Etxeberria Donostia Unibertsitate Ospitalean izan dira, OSATEK sozietate publikoak eskuratutako azken belaunaldiko erresonantzia magnetikoaren ekipamendu berria bisitatzen. Goi-mailako prestazioak dituen ekipamendu bat da eta, horrela, Gipuzkoa irudi bidezko diagnostikoaren modalitate honen abangoardian egongo da.

OSATEK sozietateak eskuratutako EMren unitatearen bidez (digitalizazio-sistema berritzaileari esker), orain artekoak baino **kalitate handiagoko irudiak** lor daitezke eta **denbora-tarte laburragoan**. Hori dela eta, profesional sanitarioek beren **ikerketen kalitatea hobetu** ahal izango dute hainbat arlotan: neurologia, traumatologia, patologia pelbiko eta abdominala, sistema kardiobaskularra eta gorputzeko beste atal batzuetan.

Ondorioz, **diagnostiko hobe**a emango da eta horrek esan nahi du aurrerapen bat dela gaixotasun neurodegeneratiboen erako **patologiak fase goiztiarragoan detektatzeari** edo diagnostiko goiztiarreko zehaztapena areagotzeari edo tumoreen jarraipenari dagokionez. EMren irudi eta txosten diagnostikoak **Historia Kliniko Elektronikoa Digitalean** sartuko dira. Bertan, hainbat espezialitatetako mediku fakultatiboek kontsultatu ahal izango dituzte, baita pazienteek ere, Osakidetzako Atariko Osasunaren Karpeten bidez.

10.000 PAZIENTE URTEAN

Tresna moderno hau ezartzeko egin den inbertsioa **1.345.507 eurokoa** izan da eta aurreikusten da **urtean 10.000 pazienteri** arreta emango diela, 07:00etatik 23:00etara bitarteko etengabeko ordutegian, **asteko egun guztietan**.

OSATEK Osasun Sailaren mendeko Eusko Jaurlaritzako sozietate publiko bat da. **1992. urtean sortu zen** eta irudi bidezko diagnostikoaren sektoreko erreferente eta esparru sanitarioko antolamendu-eredu bihurtu da.

Bi hamarkada hauetan baino gehiagoan, OSATEK sozietateak **1.200.000 paziente baino gehiagoren** diagnostikoa egiten lagundu du erresonantzia magnetikoaren bidez. Horregatik, Euskadin sektoreko lider bihurtu da. Erresonantzia magnetikoko aplikazio berriak martxan jartzen aitzindaria izan da OSATEK. Hauek izan dira aplikazio berri horiek: 3Dko angiografia kontrastatua, kolangiopankreatografia eta garuneko perfusioa, besteak beste. OSATEK sozietatearen jarduera nagusiak puntako teknologiaren irudi bidezko diagnostikoaren zerbitzuak kudeatzera, administratzera eta ustiatzera bideratzen dira; horrez gain, euskal politika sanitario globalaren esparruan ikerketan eta irakaskuntzan ere jarduten du.

EM-REN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Erresonantzia Magnetikoa gorputzeko egituren irudiak produzitzeko, eremu magnetiko bat, irrati-uhinak eta sistema informatiko bat erabiltzen dituen teknika bat da. Horrela, irudi horien bidez, espezialistek diagnostikoak egin ditzakete. Zehazki, erresonantzia magnetikoak sentsibilitate berezia du **ehun delikatuak, esaterako, garuna edo bihotza aztertzeko**.

EMren ekipamendu berriak tunel laburragoa eta zabalagoa du. Hori dela eta, gorputz handiko pazienteak edo klaustrofobia duten pazienteak errazago azter daitezke. 1.5 teslako (sistema mota hauetarako erabiltzen den eremu-intentsitatea neurtzen duen unitatea) iman supereroale bat eta mugagabeko kanalak ditu, baita aurreko ekipamenduek baino potentzia handiagoko gradienteen sistema bat ere.

Irudia eskuratzeko sistema berritzaile bat duenez, irudia ordenagailuan digitalizatu beharrez, antenan bertan digitalizatzen da. Ondorioz, seinale gehiago eduki daiteke, % 40raino, eta horri esker **azterketa azkarragoak eta kalitate handiagokoak egin daitezke**. Hobekuntza hori sistema muskulu eskeletiko, abdomeneko, pelbiseko, bularreko, nerbio-sistema nagusiko eta aparatu kardiobaskularreko azterketa guztietan aplikatu daiteke.

EM berriak orain artekoak **baino egitura txikiagoak** zehaztasun handiagoarekin argitu ahal izango ditu. Sistema berriarekin lortzen den irudiak goi-mailako bereizmena du, kalitate handiagoa du eta garbiagoa zein osoagoa da. Gainera, azken teknologia du teknika aurreratuenak egin ahal izateko alor hauetan: espektrokospian, difusioan, garuneko zein bihotzeko azterketa funtzionaletan, bularreko, prostatako eta gainerako organoetako tumoreen perfusio-azterketan. Halaber, ekipamendu berriaren bidez, irudiak **denboratarte laburragoan** eskuratu dira, eta hori onuragarria da bai gaixoarentzat (azterketa luzeak eta haien ondoriozko estresa saihestu ahal izango ditu) bai zerbitzuaren antolamendurako; izan ere, paziente kopuru handiagoari eman ahal izango zaio arreta.

GIPUZKOA SE DOTA A TRAVÉS DE OSATEK DE UN NUEVO EQUIPO DE RESONANCIA MAGNÉTICA DE ÚLTIMA GENERACIÓN

El Lehendakari Urkullu ha visitado hoy la nueva unidad, ubicada en el Hospital Universitario Donostia y que ofrece mayor calidad de imagen y más rapidez, lo que ayudará a las y los profesionales de Osakidetza a mejorar la detección precoz de patologías

El Lehendakari Iñigo Urkullu, acompañado del Consejero de Salud, Jon Darpón, y el Director General de Osakidetza, Jon Etxeberria, han visitado esta mañana en el Hospital Universitario Donostia el nuevo equipo de última generación de Resonancia Magnética (RM) adquirido por la sociedad pública OSATEK. Se trata de un equipo con las más altas prestaciones y que sitúa a Gipuzkoa a la vanguardia en esta modalidad de diagnóstico por imagen.

La nueva unidad de RM de la que se dota OSATEK permite, gracias a su innovador sistema de digitalización, obtener **imágenes de mayor calidad** que hasta ahora y **en menos tiempo**. De este modo, posibilitará a las y los profesionales sanitarios **mejorar la calidad de sus estudios** en diversas áreas: neurología, traumatología, patología pélvica y abdominal, sistema cardiovascular así como de otras partes del cuerpo.

Así, se facilitará un **mejor diagnóstico**, lo que se traduce en un avance en la **detección en fases más tempranas de patologías** como las enfermedades neurodegenerativas o en el aumento de la precisión en el diagnóstico precoz y seguimiento de los tumores. Las imágenes y los informes diagnósticos de RM se integran en la **Historia Clínica Electrónica Digital**, donde pueden ser consultados por los médicos facultativos de las diversas especialidades, y por los propios pacientes, a través de la Carpeta de Salud del Portal de Osakidetza.

10.000 PACIENTES AL AÑO

La inversión realizada para implementar esta moderna herramienta ha sido de **1.345.507 euros** y se prevé que permita atender a unos **10.000 pacientes al año**, en horario ininterrumpido de 7 de la mañana a 11 de la noche **todos los días de la semana**.

OSATEK es una sociedad pública del Gobierno Vasco dependiente del Departamento de Salud. **Creada en 1992**, se ha convertido en un referente en el sector del diagnóstico por imagen y en un modelo organizativo en el ámbito sanitario.

En estas ya más de dos décadas, OSATEK ha contribuido al diagnóstico de **más de 1.200.000 pacientes** mediante la resonancia magnética, lo que la ha convertido en líder en este sector en Euskadi. Ha sido pionera en la puesta en marcha de nuevas aplicaciones de la resonancia magnética como la angiografía 3D contrastada, colangiopancreatografía y perfusión cerebral, entre otras. Las principales actividades de OSATEK se centran en la gestión, administración y explotación de servicios de diagnóstico por imagen de tecnología puntera; además de la investigación y docencia en el marco de la política sanitaria global vasca.

CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS DE LA RM

La Resonancia Magnética es una técnica que utiliza un campo magnético, ondas de radio y un sistema informático para producir imágenes de estructuras corporales que permiten el diagnóstico por parte de los especialistas. En concreto, la resonancia magnética se caracteriza por su particular sensibilidad para el **estudio de tejidos delicados como el cerebro o el corazón**.

El nuevo equipo de RM es de túnel más corto y amplio, lo cual facilita el estudio de pacientes corpulentos o con claustrofobia. Dispone de un imán superconductor de 1.5 Teslas (unidad de medida de la intensidad de campo que se utiliza para este tipo de sistemas), y de canales ilimitados, así como de un sistema de gradientes de mayor potencia que el de los equipos anteriores.

Incorpora un sistema innovador en la adquisición de la imagen, efectuándose la digitalización de la misma en la propia antena, y no en el ordenador, lo cual permite ganar hasta un 40% de señal, lo que se traduce en **exploraciones más rápidas, y de mejor calidad**. Esta mejora es aplicable a todos los estudios del sistema músculo-esquelético, abdomen, pelvis, mama, sistema nervioso central y aparato cardiovascular.

La nueva RM podrá **clarificar estructuras más pequeñas** y con mucho mayor detalle que hasta el momento. La imagen que se obtiene con el nuevo sistema es de alta resolución, tiene mayor calidad y más nítida y completa. Además, está dotado de la última tecnología para poder realizar las técnicas más avanzadas de espectroscopía, difusión, estudios funcionales cerebrales y cardíacos, análisis de la perfusión de tumores como de mama, próstata, y demás órganos. Asimismo, el nuevo equipo permitirá que la adquisición de imágenes se realice en **menos tiempo**, algo beneficioso tanto para el paciente (que no tiene que someterse a largos estudios con el estrés que esto siempre conlleva) como para la organización del servicio, ya que se podrá atender a un mayor número de pacientes.